

KONTU KONTARI

**JOSE MENDIAGA
PASTORALA**

Arrokiaga herriak 1995ean jokatu zuen Jean-Louis Davantek idatziriko *“Agirre presidenta”* izeneko pastoralara, garaian arrakasta handia ukan zuena. Hamazazpi urte berantago, beste pastoral bat prestatu dute. Horretarako JohaÑe Bordaxar herriko semeak idatzitako *“Jose Mendiague”* trajeria hautatu dute. Erran beharra dago hauxe dela Bordaxarrek idatzi duen bere lehen pastoralara, nahiz eta jokatzearan bigarrena izan. Iaz, aurrekoa baino berantago idatz izuen *“Telesforo Monzon”* gogoangarria Larrainen jokatu baitzuten. Monzon Pastoralak izen eta bultzada handia eman dizkio Bordaxarri, eta lehen euskal kantagintzan famatua bazen, orduz geroztik pastoral-idazleen arteko eremura sartu da bete-betean, merezimendu osoz.

Hori dela eta, zuberotarrek eta gainerako euskaldunok irrika handiz itxaro dugu Mendiaga *–Mendiague frantses grafia ofizialean–* pastoralaz gozatzeko.


1. Euri zaparradaren azpian

Mendiaga pastoralaren lehen saioa uztailaren 29an, igandearekin, burutu zuten. Eguraldi ederra lagun, 3.500 ikusletatik gora Arrokiagako harmailetara hurbilduz iren. Trajeriak

arrakasta ikaragarri handia erdiets izuen. Bertara hurbilduz irenek Jose Mendiaga koblakariaren historia eta Bordaxarrek egindako ikuskizuna izugarri preziatu zituzten. Pastoral ederra izan omen zen, zinez. Nik ezin izan nuen ikusi, igande hartan Baionako bestak izaki, Lapurdiko hiriburura egun pasa egitera joatea deliberatu bainuen. Horregatik, agorriaren 5ean, igandearekin, Arrokiagara hurbildu nintzen pastoralarren bigarren saioa ikusteko asmoz. Aldez aurretik banekien, Allande Sokarros adiskideak erranik, Pirinioetan uda aldean horren ohikoa izaten den ekaitz handi eta basa horietako baten beldur zirela.

Iñaki Martiartu adiskide bakiotarrarekin batera joan nintzen. Honek erran zidanez, Bizkaitik Lapurdira zetorrela, eta Gipuzkoa zehartzerakoan, izugarrizko zaparrada bota zuela. Urruñan, gure herrian, zerua estalita zegoen arren, ez zuen ematen horrelako ekaitz handia bota behar zuenik. Zuberoara iristean zerua ilun samar zegoela ikusi genuen, hodei beltz-beltzak nonahi, baina euriri kez. Goizeko 10,30etan meza hasi zen, baina Arrokiagako elizan izan beharrean, herriko arrabotean egin zen, hara joandako guztientzat tokia izan zedin. Frontoia laster bete zen. Meza hasi eta hamar minutu buruan euria has izuen. Hasieran euri arina zena laster eraso ikaragarri handia bilakatu zen eta horrela iraun zuen luzaz.

Mezan geundenok begirada eta gogoia euri zaparrada hartan genituen, baita meza egiten ar izen apezak ere. Gure begiek urruneko mendietara begiratzen zuten eguzkia bilatzen edo..., baina ez zen esperantzarik igertzen Zuberoako zeru estali ilun haietan. Aldarearen gibelean eserita arizaleak, pastoralerako jantzita, zeuden. Haietako euri erasoari begira zeuden, triste, amorratuta, burumakur... Horrelako lana, horrelako grina... eta dena itota ze neuri erauntsi hartan.



Mendiaga pastoralaren afixa

Apezak predikuari hasiera eman zion, elizaren ohiko mezuz ziprztinduriko predikua izan zen. Arrabota betetzen genuenok, etsiturik, segitzen genion. Apezak, bera ere atsekabeturik, hone-la bota zuen: *“Jinkoak pastoral maite dü, eta Arrokiagan egin düzien lan handia bozkarioz ikusten dü. Horregatik, hodeiak eramanen ditü eta ekia berriz ekarriko”* Hura zen beren ahia, arrokiagatar atsekabetuei eman nahi zien itxaropenezko mezua. Miraria gerta zitekeen. Berak ere ez zuen horretaz gehiegi sinesten bere hitzak irri batez amaitu baitzituen. Ikus-entzuleok apezaren hitzak eta nahikaria eskertu bagenituen ere, etsipenezko irri batez ihardetsi genion. Horrelako eskaerak eta otoitzak egin arren, ez zueni nolaz ere atertu.

Hortik guttira, eta apezak zuzendurik, *“Jauna orbit zite zuin gütüzün maite”* kantu ederraren barruan pastoralari buruzko kobla zenbait airoxki kantatu genituen:

*Pastoralaren batsa da gureganatü
eta lagün goxoak zelüan baratü.
Oroitzapena dener deiküe paüsatü,
gogoan ere mila opari landatü.*

*Egüraldi eder bat egün abiatzen,
kültüraren bidean jentea agertzen,
mintzajea ütürri denak hor asetzen,
arbasoen etxalte bola da handitzen.*

Bazirudien gure kantuak zaparradaren doinua estali behar zuela, estlai agian zenbaitetan bai, baina inola zere desagerrarazi, eta kantua bukatu orduko euri basa haren doinua inoiz baino ozenago entzun ahal izan genuen. Jadanik, eguzkia ikusteko itxaropen agure bihotzetatik alde egin azen. Mezari bukaera emateko ohiko *anjelusa* abesteari ekin genion:

*Goiz, arrats eta egüerditan,
Ama laidatzen zütügü,
aingüriaren hitzak betan,
errepikatzen deitzügü.*

Anjelusa amaitzean lehengo egoera bera, frontoitik kanpo euri eraso ikaragarri handia eta aurpegi goibel-goibelak frontoi barruan geundenon artean. Ez zen inolako miraririk gertatu. Inor kez zuen kanpora ateratzeko imintziorik egin, ezinezkoa baitzen. Denok, apeza, arizaleak eta musikariak barne, gure tokietan, mugitu gabe, gelditu ginen. Zaparradak bitartean bere hartan jarraitzen zuen. Musikaririk *Türken martxa* jotzen hasi ziren. Bertan geundenok bihotzez eskertu genien. Gero, lauzpabost bat doinu gehiago jo zituzten. Denbora igaroa hala, euria atertu ez, baina nabarmen guttitu zen. Hura zen itxarotako momentua. Arizaleak eta musikariak frontoitik ateraz iren, kanpoan zain zeuden artzainak eta kabaleak gehitu zitzaizkien, eta horrela, inon pausatu gabe, herriaren kanpo aldeko pentzetan ezarriarik zuten agertokiraino joan ziren, gainerako

guztiok, aterkia eskuan zabalik, gibeletik gindoazkielarik. Bidean asto bat zeraman gizonarekin hitz egin nuen. Biak atera omen ziren, duela hamazazpi urte, Agirrerren pastoral famatu hartan. Bien adina zela eta, ez zuten Arrokiagaren hurrengo pastorelean ateratzeko itxaropen izpirik.

Agertokia zegoen pentzera iritsi bezain pronto denok xapito azpian xerkatu genuen aterpe. Bazkaltzeko tenore azen. Euriak indar handiz jarraitzen zuen. Orduan zurrumuru goibela zabaldu zen. Arratsaldeko pastoral saioa bertan behera uzteko deliberoa hartua omen zuten. Tristeia baina arrunt ulergarria. Hortik aurrera orduak etsipenezko monotoniaz igaroz iren: bazkariak, kafeak, Zuberoako kantu ederrak..., baina jadanik egunak ez zuen itzulbiderik. Arratsaldeko saioa hurrengo igandean egin beharko zen, ez zegoen beste irtenbiderik. Pittakapittaka jendea lokaztegi hartatik desagertzen hasi zen. Arizaleak arropaz aldatu ziren, musikariak isildu eta gauerako afaria prestatzen ari ziren ikastolako gurasoak, etsiturik, dena gordezten hasi ziren. Arrokiagatarrek eta pastoralak bestelako egun eguzkitsua merezi zuten.

2. Baina nor zen Jose Mendiaga?

Hurrengo hitzordua agorrilaren 12an, igandearekin, etorri zen. Iñaki adiskidea Urruñar abila etorri zitzaidan eta elkarrekin Zuberoa alderantz abiatu ginen. Eguerdiko hamabiak ziren. Oraingo honetan Mendiagari buruzko pasterala ikusiko genuelakoan geunden. Jose Mendiaga Larregain 1845eko apirilaren 27an sortu zen Nafarroa Behereko Alduden herrian. Aita ziburu-tarra zuen eta ama aihertarra. Aita lanbidez aduanako langilea zen eta jarduera horrek eramane zuen sendi osoa Aldudera. Gerorxeago lanbidez aldatu eta Hazparnera joan zen ostaler. Orduz geroztik han bizi izan ziren. Jose Mendiagak lau urte zituen orduan, eta hori dela eta, bere burua hazpandartzat jo zuen beti.

Egoera ekonomiko txarra zela eta, Josek orduan euskaldun gazteen artean horren ohiko azen Ameriketarako bidea hartu

behar izan zuen. Eta horrela 1863. urtean, hamazortzi urte zituela eta bere bi anaiaren arrastoari jarraiki, Uruguaira hasieran eta Argentinara gero joan zen. 1880an Uruguaira itzuli eta urtebete beranduago, hau da, 1881eko martxoaren 29an, Margarita Gandolla italiarrarekin ezkondu zen. Lau haur ukan zituzten eta bizimodua aurrera atera ahal izateko ostatu-pentsio bat hartu eta kudeatu behar izan zuten. Geroxeago Remigio Gal-dos adiskidearekin batera tabako lantegi bat kudeatu zuen.

Jose Mendiaga beti izan zen euskaltzale eta abertzale handia, baita Ameriketan ere, euskarari atxikia, pilotaria, koblakaria eta kantaria. 1887an San Jose hirian *Euskaldunak Bati zeneke* elkarte sortu zutenean, Martin anaia izan zen lehendakari eta Jose bera idazkari. Ameriketatik bere bertsoak igortzen zituen euskal prentsara, Baionako *Eskualduna* eta *Gure Herrian* aldizkarietara, Los Angeleseko *Californiako Eskual Herria* zelakora, Buenos Aireseko *Eskual Herria* eta *Haritza* izenekoetara, eta abar.



Beñat Larrori izan zen sūjeta gaztea.

1900 aldera, Jose Mendiagak eta haren familiak San Jose hiria utzi eta Montevideon finkatuz iren. 1937ko irailaren 12an bertan hil zen horrenbeste maite zuen Euskal Herri aberriz ikusi gabe. Euskaldunok bihotzean atxikirik ditugu Mendiagaren kantu zenbait, *Kantuz sortu naiz* eta *Euskaldun guziak bat* ezagunena keta hedatuenak ditugularik. 1992. urtean Piarres Xarritonek Mendiagaren bizipenak eta bertsoak biltzen zituen *Zazpiak bat. Eskualdun kantuak* izeneko liburu ederra plazaratu zuen. Ikusten duzuenez, Jose Mendiagak ongi merez izuen pastoral bat. JohaÑe Bordaxarrek eta arrokigatarrek nolabait kitatu dute pastoral honen bitartez euskaldunok Mendiagarekin genuen zor handia. Mila esker, bada, Bordaxarri eta Arrokiagako herritar adoretsei.

3. Agorrilaren 12ko pastoral saioa

Igandeko eguraldi txarra eta euri zaparradak astelehenerako desagertu ziren, eta berriz ere, eguzkia nagusi agertu zen Zuberoko eta Euskal Herri osoko zeruetan. Gainera, Ipar Afrikatik gurera iritsi zen haize beroak sekulako tenperatura handiak ekarri zituen. Aste osoan zehar bero ikaragarria egin zuen eta hurrengo iganderako, berriz ere, tenperaturak jaitsi ziren. Zuberotan erne ziren ea aurreko asteko euri erasoak errepika zitezkeen beldurrez. Zirimiri batek goizeko lehen orenak freskatu bazituen ere, eta urruneko mendietan hodei beltzak ikus eta trumoiak entzun bazitezkeen ere, ez zen hortik okerrera pasatu eta igandea inolako euririk gabe igaro zen.

Arratsaldeko 3,30etan, puntu-puntu, hasi zen, tturken martxaren doinu alaiaz pastoraleko arizaleak oholtzara igor zirenean. Harmailetan jende aunitz bazen ere, ez zen horrelako betealdia gertatu. Garatu beharreko historiaren laburpena egin zuen lehen perediküaren ondoren, lehen jelkaldietan Mendiagaren bizitza egituratzen hasi ziren. Gurasoak, Alduden sortu

zenekoa, Hazparnera bizitzera joan zirenekoa, Hazparnen eza-gutu zuten pobrezia, Martin eta Denis anaiak Argentinara eta Txilera joan zireneko une latzak... Historiaren hariak maisukiro josi zituzten eta horretan arizaleen lan bikainak, musikari on-onek eta Sophie Larrandabürük ikaragarri ongi zuzenduriko kantariak izugarri lagundu zuten.

4. jelkaldian Jose Mendiaga bera izanen da Ameriketara joango dena, euskal diasporarekin harremanetan sartuz. 5. jelkaldian satanak atera ziren lehen aldiz eta oholtzako ate gorriaren gaineko deabrüa dantzan hasi zen. Ondoren eta indar handiz ttürka andereak elki ziren euren makilak bortizki astinduz. 6. jelkaldian lehen güdüka izan zen. 7. jelkaldian bigarren güdüka egin zuten, bertan aurrez aurre aritu ziren borrokan Julio Argentino Rocaren soldaduak eta Patagoniako maputxeak. Azken horiek beraien lurra defendatzen zituzten. Güdüka soldaduek irabazi zuten indioen kalterako. Sekulako triskantza egin zuten eta lurrian indio bat hilik gelditu zen.

8. jelkaldian emaztegia ezagutu zuen eta 9.ean ezkondu ziren. Ezteia tenorean euskal giroko besta eskaini ziguten irrintzi eta guzti. Hortxe abestu zuten bosgarren kanthorea, Mendiagak egindako *Kantuz* ospetsua:

*“Kantuz sortu naiz eta kantuz nabi bizi.
Kantuz igortzen ditut nik penak ihesi.
Kantuz izan dudanean zerbeit irabazi.
Kantuz gostura ditut guriak iretsi.
Kantuz ni bezalakoak hiltzea du merezi.”*

Amaiera aldean laugarren kanthorea abestu zuten, *Candombe para José* izenekoa. Bi kantuek arrakasta handia erdietsi zuten ikus-entzuleen artean.



Güdüka kolono europarren eta maputxeen artean.

Hurrengo jeltaldietan Uruguai eta Argentinan izandako gertakizun sozial-politikoek berri eman ziguten. Horretaz gain, Jose Mendiagak eta Margarita Gandolla emazte italiarrak edukitako seme-alabez aritu ziren, Remigio Galdos adiskidearekin zabaldu zuten tabako lantegiaz, pilotan aritu zeneko kontuaz, Juan Idiarte Borda euskalduna Uruguaiako lehendakari izendatu zutenekoaz eta abar. 13. jeltaldiaren hondarrean Jose Mendiagak lehendakariaren alde egindako koblak kantatu zituzten:

*“Nahi gabe ezartzen zaituzte ohoretan,
Euskal Herrietako moda ederretan,
erakuts diezozute obra guzietan
ez zirela bakarrik-vasco- arropetan,
euskaldunen odola duzula zainetan.”*

14. jeltaldian Uruguaiako zuri eta gorrien arteko güdüka jokatu zuten, bi aldeetan hilak izan zirelarik. Jeltaldiaren bukaeran alderdikide zuen Abelino Arredondo euskaldunak Juan Idiarte Borda lehendakaria tiroz hil zuen. 15. jeltaldian

Mendiagak gazte-gaztetik miresten zuen Jan Batista Otxalde bertsolariaren heriotzaren berri eman zuten. Gorrien aldekoa zenez, Hargindegi apezak ez zuen Bidarraiko elizan haren aldeko elizkizunik egiten utzi. Antxordoki auzapezak ere ohore guztiak ukatu zizkion. Mendiagak albiste tristea jakin zuenean egindako bertso ederrez amaiera eman zioten jelkaldiari:

*“Hau da nik Otxalderi eman dudan meza;
bakotxak bere partez hoinbertze egin beza!
Inkomodatu gabe elizan apeza,
zoin gure etxetarik eginez otoitza,
Jainkoak bertsulariak zeruan har bitza!”*

19. jelkaldian 1912ko agorrilaren 15ean, Montevideoko *Euskal Erria* izeneko elkartearen egoitzan bildu ziren erromerian Uruguako hiriburuan bizi ziren euskaldun franko, Jose Mendiaga beraien artean zegoelarik. Denetik izan zen bertan, fandangoa, arin-arin, euskal kantuak... 21. jelkaldian euskal artzainak Hazparneko Ursuia mendian bildu ziren kantuz. Oholtza aurreko harmaila pentze aldapatsu batean zegoen —eta hortxe geunden gu jarririk—; goiko aldean, azken harmailetatik hogei-ta bost bat metrotara artaldea zegoen lasai ederrean bazkatzen. Artzainek eta artzain-orak ardiak jaitsi eta oholtzara igo arazi zituzten. Osora hamabost bat artzain ziren asto eta guzti, pastoral guztietan usantza den bezala. Jean Bordaxarrek egindako kanthore ederra, *Artzainak kantan* izeneko abestu zuten eta gero taloak ikus-entzuleengana jaurti zituzten.

*“Egün artzainak kanta goratik gure filosofia,
zelüan argi, bibotza laxü, güne paregabea.
Abaire batek emaiten deikü agoñü berezia,
kanta goratik egün artzainak gure libertatea.”*



Jose Mendiaga eta Margarita Gandollaren ezteia.

22. jekaldiaren amaiera aldean, Maider, Maialen eta Beñat Larrori anaia-arrebek gaztelaniazko *Virgen Morenita* izeneko kantu xarmangarria abestu zuten. Egiazki ederra eta zoragarria izan zen.

*“Virgen Morenita, india te llamamos
por que india tu naciste por la gracia de Dios.
Así somos esclavos de tu bondad divina,
así somos esclavos de tu infinito amor.”*

*“Andramari Beltzarana, indiarra deitzen dizugu
Jainkoaren doaiatz beltzarana jaio baitzinen.
Zure eskuzabaltasunaren gatibu gara,
zure mugagabeko amodioaren gatibu gara.”*

Larritarrak betidanik izan dira kantari on eta ospetsuak Zuberoan. Aita, René Larriori Arrokiagako Munaut etxaltekoa, Irurira ezkondu zen, eta hori dela eta bi herri hauetan jokatu dituzten pastoraletan parte hartu du, eta ez nolana gainera. 1995ean Arrokiagak jokatu zuen *Agirre presidenta* gogoangarrian süjeta izan zen, eta Agirre lehendakariarena ederki egin zuen, hitzez eta kantuz. 2001ean, Irurik jokatu zuen *Etxahun-Iruri* pastoraletan süjeta izan zen, berriz ere, Etxahun-Iruri pertsonaiarena eginez. Oraingo pastoraletan Uruguaiako Juan Idiar-te Borda lehendakari euskaldunaren papera jokatu zuen, beti bezain ederki. Seme-alabek ederki erakutsi zuten aitaren ezpalekoak zirela, hau da, munautarrak.

Kantua eta gero Argentinako dantza eder batez amaiera eman zioten jelkaldieri.

Azken jelkaldian, hau da, 24.enean, Mendiagaren heriotzaren tenorea izan zen. Bertan aritu ziren süjeta et agertuko senideak, Martin eta Maruja seme-alabak, haren suhia, bilobak, apeza eta aingüriak. Azken horiek honela kantatu zioten heriotzaren orduan:

*“Zelüko bortak ideki
bibotz hon den jenteari.
Kültürer zabal denari
Jinkoak düke opari”*

Ondoren 11. kanthorearen txanda izan zen, Mendiagak egindako *Euskaldun guziak bat* izeneko abestu zutelarik:

*“Gure aitamen aitek erranak behar ditugu sinetsi,
ez dela behar gure Herrian euskara baizik onetsi,
euskaldun sortu, euskaldun bizi, euskaldun hil eta ebortzi.
Munduan hori egiten duenak zerua duke merezi”*

Aingüriak buruan zihoazela, senideek Mendiaga eraman zuten paradisuazko ate zuri zabalerantz. Denek kantatzen zuten Mendiagak eginiko *Kantuz* liluragarriaren azken bertsoa, baita ikus-entzuleetako aunitzek ere. Unea sentimendu handikoa izan zen, zirrargarria, magikoa. Nire gibelean ziren bi emakume hazpandarrak negarrez ari ziren.

*“Kantuz ebortz nezaten biltzen naizenian,
kantuz ene lagunek barturik airian,
kantuz ariko dira ni lurrean sartzian,
kantu franko utziko diotet munduian
kantu egin dezaten nitaz oroitzian.”*

Ate zuria ixtean dantzariak atera ziren oholtzara agur dantza zoragarri eta koloretsu bat eskaintzeko. Patagoniako kutsua zuen. Dantzarien artean hiru banderari. Lehenak euskal ikurri-na astintzen zuen, bigarrenak aitzinean Zuberoako bandera eta gibelean Lapurdikoa zeramatzana, eta hirugarrenak aitzinean Uruguaiakoa eta gibelean Argentinakoa zeramatzan bandera bikoitza.

Dantza ederra izateaz gain, kolore eta indar handikoa izan zen, biziki plastikoa, jendeak esku sarta handiz saritu zituena.

Gero, azken perediküak bukaera jarri zion trajeriari. Ondoren ohiko antxerak izan ziren. Zuberoako zortzi bat herrik dirua eskaini zuten norgehiagoka, Sohüta, Atharratze, Iruri, Barkoxe, Larraine... tartean zirelarik. Azkenean Sohütak irabazi zuen 1.100 euroekin. Oroit dezagun uztailaren 29an izan zen lehen saioan Barkoxek irabazi zuela 2000 euro eskainirik.

Sohütarrak pozik zeuden antxerak irabazita, beraiek eginen baitute hurrengo urteko pastorala, Rene Cassin baionarra süjetatzat edukiko duena. Berehala musikariak antxeren ondoren jotzen dituzten ohiko bi dantzak jotzeari ekin zioten: *Muñei-*

nak eta Aintzina pika. Harmailetan ziren sohütarrak oholtzara igo ziren eta airoxki dantzatzeari lotu zitzaizkion. Ongi erakutsi zuten Sohütak dantzari onak dituela, hurrengo urteko pastoralearan ere aukera ezin hobea ukanen dute beraien trebezia erakusteko.



Agur dantza zoragarria.

Ene ustez, Mendiaga pastorala ederra izan da, bai arizaleen jokoan, bai dantzetan eta zer esanik ez kantuetan ere. Garbi dago JohaÑe Bordaxar pastorgile trebea izan aurretik kantari fina izan dela, eta urte luzetan horrela jarrai dezan. Kantuek leku handia bete dute pastoralaren barruan, bai Mendiagaren bertsoek eta baita Bordaxarrek egindako kantuek ere.

Bordaxarrek jokatu dioten bigarren pastoral honetan ederki erakutsi du jadanik maisu handia dela pastoral kontuetan. Bere trajeriaz sentimendu handiaz janzen ditu, eta biziki ongi daki historiaren ildo arizaleen jokoaren bidez helarazten. Pastoralak badu pastorgile emankorra Bordaxarengan, hurrengo urteetan frogatuko digun bezala.

Alabaina, esan beharra dago, pastoral honen arrakasta ez dela bakarrik Bordaxarren luma finaren bitartez etorri. Fabian

Lexardoi errexentak izugarri ongi zuzendu du, musikariak izugarri ongi aritu dira, Sophie Larrandabürük kantariak zuzentzen egindako lana mundiala izan da, arizaleen jokoa distira handikoa, kantariak ahal zuten guztia eman dute... Orotara harturik, pastoral ederra eta biribila atera zaie, urte luzetan Zuberoan eta gainerako euskal lurraldeetan oroituko dutena. Ene zorionik beroena luzatu nahi diet aipatu ditudan guzti-guztiei, eta nola ez, baita Zuberoa osoari ere, urtez urte horrelako trajeria ederrak jokatzeko eta plazaratzeko egiten duen lan animaliatik.

Pittaka-pittaka oholtzatik urrunduz jendea xapito azpian jarritako ostatura hurbildu zen, eta han izan ziren eztarria bustiz eta kantatuz ikastolakoek antolaturiko afariaren zain. Pastoral ederra bada, ostatuan emandako pastoral ondorengo momentu horiek ere aski goxoak izaten dira.

Adiskide zaharrekin hitz egiteko uneak izaten dira, umore onean eta aldarte hobean igarotzeko tenorea. Gu ere bertara hurbildu ginen, eta han izan ginen oren batez edo, batekin eta bestearrekin mintzatzen. Allande Sokarros adiskideak Oloruen gertatutako xelebrequeria kontatu zidan. Hango etxe batean ba omen zen oilar oso goiztiar bat, haren kukurrukuaz herri osoa iratzartzen zuena. Zenbait bizilagunek eskakizuna aurkeztu omen zuten herriko etxean, oilar hori isilarazi zezaten, eta okerrena, Iturri izeneko alkateak eskakizuna onartu eta oilarra isilarazteko agindua eman omen zuen. Alde batetik arrunt barragarria egin zitzaidan gertakizun hura, baina beste aldetik natura osoa izorratzen ari diren urbanita horien beste balentria bat zela ikusi nuen. Tristeia eta penagarria. Urbanita horiek ez dira geldituko planetako azken erreka porlanez bete arte.

Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruña, 2012ko agorrilaren 16an.